

Arana Goiri, Gora!, Behera!

Egunkaria, 1994-03-29: 2.

Sabin Aranaren erretratua salan genuen etxean, eta gerrako lehen astinduek bota gintuztenean, pentsatzen dut nolako amorruekin erasoko zioten irabazleek. Bilbon igaro genuen ia urtebetea jaso nuen sarri bere aipamena gudariz osatutako batailoiak bere izenekin *ikurrinaz* desfilatzen ikusten nituenean. Venezuelan aurkitu nituen bere izpiritua eta irudia, biak, eta bertan hasi nintzen 1965ean, bere lan osoak argitaratu zirenean, idatzitakoak irakurtzen. Lau urte gero Euskadira itzuli nintzenean, ez nintzen ipuinak idazten jarri eta beste gauzen artean Arana Goiriren lan osoak berrargitaratzen aritu nintzen, bere biografia idazten, eta bere figura defendatzea suertatu zait artikuluetan eta liburuetan geroztik. Bitarte honetan belaunaldi berriak borrokatu dira *Euskadiren* alde, bere *abestiak* kantuz jartzen, "*Gora Euskadi askatuta!*" deiadarka. Lizardi, Lauaxeta, "Orixe" eta "Euzko-Gogoa"ko Zubiak erabili zuten euskara idatziaren lehen *Euskal Alfabetu Euskaldunaren* sortzaile izan zen, ohizko bilakabidea dela medio gero erabilia, noski. Hau eta gehiago egiten zituen lan bakarti honetan aita karlistak utzitako osasuna eta diruak. Txiro eta 38 urte gazte zituela hil zen herriminez. Ez herenegun!, inor *Joseba* edo *Koldo* deitzen ez zeneko 1903an baizik, hauek ere hark sortuak baitira. Hau kokatu behar da bere ideologia eta bere jokabidea! Egia da azken belaunaldiek ez zutela bere obra kontestu honetan irakurtzeko astirik izan: batzuk alderdikoiegi erabili genuelako, eta besteak ezkor; historia ahaztu dutenak ere badira. Ez al dugu herri honetan inoren memoria gordetzeko behar den begirune apur bat izango!?